



HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN VI. NEURKETA, 2011

IKERKETAREN IBILBIDEA

- Euskararen Kale-Erabilaren Neurketa **ibilbide luzeko ikerketa-lan zabala** da, Siadecoren eta Euskal Kultur Batzordearen –EKB– eskutik abiatu, eta gaur egun, hogeita bi urteren ostean, Soziolinguistika Klusterrak egiten duena.
- Neurketaren I. edizioa 1989an egin zen, eta azkena, VI.a, 2011n burutu da. **Hogeita bi urtetan sei argazki atera zaizkio euskararen erabilerari Euskal Herri osoan**. Argazki horiek aukera ematen dute une jakin bateko egoera zertan den jakiteko, eta, batez ere, urteotako bilakaera nolakoa den ezagutzeko.
- Inkesta soziolinguistikoa batea**, Kale-Erabilaren Neurketa da **euskararen termometrorik adierazgarriena** eta egoera soziolinguistikoa zertan den jakiteko tresnarik garrantzitsuenak.
- “Zenbat erabiltzen da euskara kalean?”**, galdera horri erantzun nahiak bultzatu zuen ikerketa. Hala, ahozko erabilera jasotzen da kalean. **Eremu publikoan**, denona den eta inorena ez den espazio librean egiten da ahozko jardunaren behaketa, herritarrek modu espontaneoan ari direla. Ez dago hizkuntza jardunean eragiteko interbentziorik (ez da eskola edo lantegia, adibidez).
- Ikerketa honen berezitasuna batez ere metodologian dago. Izan ere, **behaketa bidez jasotzen dira datuak**. Neurtzaileek ere ez dute interferentziarik eragiten, alegia, hiztunari ezer galdetu gabe, norbanakoaren **subjektibotasuna albo batera utziz**, entzun eta elkarrizketaren hizkuntza jasotzen da, hiztunaren adina, sexua eta haurren parte-hartzearen informazioarekin batera.

LANDA-LANA

- 2011ko VI. Neurketa** honetan **Euskal Herri osoan 97 udalerri neurtu dira**, eta 154.277 elkarrizketaren nahiz 363.616 hiztunen informazioa bildu da.
- Jasotako datuen bolumen handi horrek bermatzen ditu fidagarritasun estatistikorako baldintzak. Udalerriei haratagoko emaitzak lortzeko (lurraldeka, Euskal Herria...) hainbat kalkulu estatistiko egin dira¹. **Lagin-akatsa % 95eko konfiantza-mailarekin $\pm 0,4$ koa da.**

LAGUNTZAK ETA ESKER ONAK


- Ikerketa honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren; Industria, merkataritza eta turismo sailaren; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien; 46 Udalen; eta Orona kooperatibaren diru-laguntza jaso du.
- Bestalde, VI. Kale-Neurketa honetan bereziki gogoratu nahi genuke **Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegia**, urte honen hasieran hil zen adiskidea eta irakaslea izan baitzen 1989. urtean erabilaren neurketa bultzatu zuena.

¹ Aurreko neurketetan argitaratutako datuak aldatu egin dira zertxobait, egokitzapen metodologiko bat egin delako.

EMAITZA NAGUSIAK

EUSKAL HERRIA

- **Duela hamar urtetik hona euskararen kale-erabilera bere horretan dagoela esan daiteke, trabatuta.**
 - 2011ko udazkenean burututako kale-neurketan **euskararen erabilera % 13,3koa izan da.**
 - Euskal Herriko Kale-Neurketa egiten hasi zenetik, **hogeita bi urteko epean, 2,5 puntu egin du gora euskararen erabilera Euskal Herriko batez bestekoan.** Hasierako edizio hartan, 1989an, % 10,8ko erabilera jaso zen.
 - Azken hamar urteko epea hartuz gero, erabilera trabatu egin dela esan behar da. Geldiune batean dago. **2001eko erabilera 2011koaren berdina izan zen: % 13,3.**
 - 2006an % 13,7ko euskararen erabilera jaso zen. Dezimal horien gorabehera errore-tartearen barnean sartzen da, eta esan dezakegu erabilera bere horretan mantendu dela gutxi-asko.




1. Batetik, **esan dezakegu egungo baldintza soziolinguistikoekin euskararen erabilera goia jo duela.** Ez dago hobekuntza tarterik euskal hiztunen kopuruak nabarmenki gora egiten ez badu eta, aldi berean, hiztun berri horiei euskarazko harremanetan txertatzeko aukerarik eskaintzen ez bazaie. Hau da, erabilera ezin dezake gora egin elebidunen masa soziala eta euskararen erabilera ahalbidetzen duten sare zein guneen kopurua handitzen ez badira.

2. Euskaldunen zenbatekoa kontuan hartuta, erabilera datuak estatistikoki espero zitezkeenak baino **hobeak dira.** Oro har, euskaldunok hizkuntzarekiko fidelak gara, bestela, eta probabilitate estatistikoen arabera, are gutxiago erabiliko genuke euskara. Bigarren baieztapen honen oinarrian, Txillardegik garatutako erabilera isotropikoaren teoria dago.

HIZKUNTZA-ANIZTASUNA GERO ETA PRESENTEAGO DAGO GURE KALEETAN

Bosturteko honetan euskara, gaztelania eta frantsesa² ez diren hizkuntzen erabilerak modu esanguratsuan egin du gora: % 2,6tik % 3,7ra. Azterketa hau azken bi neurketetan baino ez da egin; aurretik ez ziren beste hizkuntzen erabilpenak jasotzen.




² Gaztelania beste hizkuntzen multzoan sartu da Iparraldean, eta modu berean frantsesa Hegoaldean.

LURRALDEKA

Gipuzkoan jaso dugu erabilera-mailarik altuena, % 32,7; Bizkaian % 9,4; hirugarren multzoan Iparralde eta Nafarroa ditugu, hurrenez hurren % 6,2 eta % 5,7 ; Azkenik, gutxien erabiltzen den lurraldea Araba da, % 4,0.



GIPUZKOA

Lurralderik euskaldunena da Gipuzkoa, eta **hogeita bi urtean goranzko joera nabarmendu da**. Joera hori etengabea da, nahiz eta apaldu egin den azken bosturtekoan.




BIZKAIA ETA ARABA

Bi lurraldeotako erabilera-indizean ez da aldaketarik antzeman 1993az gero. Ez atzera ez aurrera dago euskararen erabilera. Azken bost urtean behera egin du zertxobait, arretaz jarraitu beharreko bilakaera da aurrera begira.




NAFARROA

Nafarroan behera egin zuen euskarak 90eko hamarkadan, baina **2001etik geldirik dago**, aldaketa esanguratsurik gabe.



IPARRALDEA³

1997tik 2006ra jaitsi egin zen euskararen erabilera Iparraldean, baina **joera hori aldatu egin da** azken bosturtekoan, eta 2011ko datuak orain bost urtekoen berdinak dira.



³ Ipar Euskal Herriko datuak hiru lurraldeak batuta emango ditugu, bereizita emateko jasotako elkarriketa kopurua nahikoa ez delako.


EZAGUTZAREN ARABERAKO ZONALDEAK

Bi ohar:

- Ezagutzaren arabera zonaldeen datuak 1993az geroztik ditugu, hamazortzi urteko bilakaera azter dezakegu, beraz.
- Zoritxarrez, ezagutzari buruzko daturik ez dugu Iparraldean, eta Hegoaldeko eremura mugatu beharrean gaude.



Ondorioak:

- Euskal Herriko biztanle gehienak zonalde erdaldunenean bizi dira, hau da, ezagutza % 25 baino txikiagoa den eremuan. Biztanleria osoaren % 70 inguru bizi da bertan, eta azken neurketan erabilera %3 ingurukoa da. 1993an ere erabilera-maila bera jaso genuen. 2006an, ordea, erabilera % 4koa izan zen.
- Euskaraz dakiten biztanleen portzentajea % 25 eta % 50 bitartekoa den zonaldean erabilera % 14-15 ingurukoa da. Ia lau puntuko igoera gertatu da hamazortzi urtean.
- Ezagutza % 50 eta % 75eko tartean dagoen zonaldeetan, erabilera % 40 ingurukoa da. 1993tik hona igoera nabarmena gertatu da zonalde honetan, ia zortzi puntukoa, hain zuzen.
- Azkenik, biztanle gehienek (% 75 eta % 100 artean) euskaraz dakiten zonaldeetan, entzundako hitzunen % 66 inguru euskaraz ari ziren. Hiru puntuko igoera izan du erabilerak 1993tik hona.



HIRIBURUAK

- **Gasteiz** eta **Bilbo** zonalde erdaldunen bilakaera bera izan dute. 2006a bitarte goranzko joera apala izan du erabilerak, eta azken bost urtean zertxobait behera egin du. Bi hiriburuaren ezagutza % 25 ingurukoa da, eta jaso dugun **erabilera % 3 ingurukoa**.
- **Iruñean** erabilera bere horretan dago 1997az geroztik, % **2,5-2,9ren** bueltan.
- **Donostian** 1989tik hona ia sei puntu egin du gora erabilerak. Baina, **2011ko neurketan duela hamar urte jaso genuen erabilera-maila bera jaso dugu (% 15,9)**. Bost urte lehenago erabilera %18koa izan zen. Arretaz erreparatu beharko dugu hurrengo neurketetan beherakada horrek jarraipenik ba ote duen.
- Nabarmenezko beste puntu bat da **Gasteizen, Bilbon eta Iruñean beste hizkuntzak euskara baino gehiago erabiltzen direla**. Beste hizkuntza horiek, euskarari ez ezik, gaztelaniari ere eragin diote.




ADIN-TALDEAK

Lau adin-talde bereizi dira: haurrak (2 eta 14 urte bitartekoak), gazteak (15 eta 24 urte bitartekoak), helduak (25 eta 64 urte bitartekoak), eta adinekoak (65 urtetik gorakoak).

Bi dira azpimarratu beharreko fenomeno nagusiak adin-taldearen azterketari gagozkiola.


- Gehien hitz egiten dutenetik gutxien hitz egiten dutenera ordenatzen baditugu adin-taldeak, haurrak daude lehen tokian (% 19,2), gero gazteak (% 13,4), helduak (% 11,8) eta, azkenik, adinekoak (% 9,7). Horren arabera, **zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara**. Hurrenkera hori lurralde gehienetan betetzen bada ere, Bizkaian bada aldageta bat: Bizkaiko adinekoek gehiago egiten dute euskaraz helduek baino.



Lehenengo kale-neurketa egin zenean, 1989an, haurren artean jaso genuen erabilera-mailarik altuena, baina bigarrenaz adinekoen erabilera genuen, ondoren helduena, eta azkenik gazteena.

Hogeita bi urteko bilakaera aztertuz gero, oro har:






- Haurretan, gazteetan eta helduetan erabilerak gora egin du.
- Ez, ordea, adinekoetan.



Joera orokor horretan badaude salbuespenak, hala ere


- Nafarroan, haurretan behera egin du, gazteetan eta helduetan egonkor mantendu da.

- Araban, helduetan erabilera egonkor dago eta, Iparraldean, helduetan behera egin du.




SEXUA ETA ADIN-TALDEEN ARABERAKO DATUAK:


Emakumezkoek gehiago egiten dute euskaraz gizonezkoek baino adin-talde guztietan, adinekoetan izan ezik. Portaera hori ia lurralde guztietan gertatzen da, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan izan ezik.



Ipar Euskal Herrian, haurren artean nesken erabilera altuagoa bada ere, gainontzeko adin-taldeetan mutilen erabilera aurretik dago.




Nafarroan parez pare dago emakumezkoen eta gizonezkoen erabilera haur, gazte eta helduetan.



HAURREN PRESENTZIA

- Haurren presentzia eragin handiko aldagaia da euskararen kale-erabilera.
- Ondorio nagusia argia da: **haurrak eta nagusiak⁴ elkarrekin daudenean jasotzen dira erabilera-datu altuenak**. Haurrak nagusien presentziarik gabe ari direla, edo nagusiak haurren presentziarik gabe, erabilera baxuagoa da nabarmenki.
- Esate baterako, **Araban** alde benetan esanguratsuak jaso dira:
 - o **haurrak nagusirik gabe** ari diren elkarrizketetan hitzunen % **2,1 euskaraz dira**;
 - o **nagusiak haurrik gabe** ari direnean % **2,4 dira euskaraz**, eta,
 - o **haurrak eta nagusiak elkarrekin** ari badira⁵, % **7,6 dira euskaraz**.
- Salbuespena **Gipuzkoa** dugu, euskara gehien erabiltzen den lurraldea:
 - o **Haurrak eta nagusiak elkarrekin aritu, edo haurrak bakarrik aritu, erabilera antzekoa da: % 45 ingurukoa**.
 - o Baina, **nagusiak bakarrik ari direnean % 23,7koa** da erabilera.



⁴ Nagusitzat hartzen ditugu gazte, heldu eta adinekoak.

⁵ Elkarrekin aritze horrek esan nahi du hizlaria eta entzulea edozein delarik ere, gutxienez haur bat eta nagusi bat presente daudela elkarrizketan.

HAMAR EGUN BARRU DATUEN AZTERKETA EHU/UPVko UDA IKASTAROETAN

Datu hauek guztiak sakonago aztertzeko Soziolinguistika Klusterrak ikastaro bat antolatu du:

“Euskararen erabileraren bilakaera, egoera eta norabidea, datuen argitan”.

EHUko udako ikastaroak
Donostiako Miramar Jauregia
Uztailaren 16 eta 17an

- Ikastaroan euskararen egoeraz arduratzen diren bi ikerketa kuantitatibo nagusien azterketa egingo da. Izan ere, bi ikerketen azken emaitzak kaleratu berri direnez, une egokia da emaitzak aztertu eta ondorioak ateratzeko. Ariketa hau ikuspegi desberdinetako jende ugariaren artean egin nahi da. Honako helburu hauekin antolatu da ikastaroa:
 - Inkesta Soziolinguistikoa eta Euskal Herriko Kale-Erabileraren Neurketaren emaitza nagusiak aurkeztea.
 - Pertsona eta eragile erreferentzialek datuez egiten duten irakurketa zabaltzea.
 - Euskararen bilakaera, egoera eta norabideaz hausnarketa egin, eta eztabaida sortu eta sustatzea.

Ikastaroan parte hartuko duten adituen hitzaldiak bideoz ikusi ahal izango dira Soziolinguistika Klusterreko webgunean: <http://www.soziolinguistika.org/>

BATZORDE TEKNIKOA:

- Olatz Altuna. Soziolinguistika Klusterra
- Xabier Isasi. EHUko irakaslea
- Iñaki Iurrebaso. Soziologoa
- Iñaki Martinez de Luna. EHUko irakaslea
- Rosa Ramos. Berriozarko euskara teknikaria